

Aretxagazeta

Aretxabaleta • 2001eko uztailak 6 • 217. zka.

Bedarra mozteko sasoia

Iturririk iturri: Larraitz Iñurrategi • Iritzia: Osane Ayastuy • Kirolak: Ramon Iturrikastillo

Flex 7 eserlekuen sistema:
barruko espazioaren
definizio berria



NORTE GARAJEAK, S.L. OPEL

Basabe Poligonoa A-13 20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 71 20 03 • Fax: 943 77 16 20




AZKARATE
AROSZTEGIA

**Ateak,
leihoak,
horma
armairuak,
tarimak eta
parketak**



Telleria, 19 B-0-2 B-0-3
BERGARA
Tel.: 943 76 47 19
ARETXABALETA
Tel.: 943 77 01 24

Bukatu da eskolie, eta umiek hiru hilabeteko oporrak daukie. Oin zertan pasauko dozue denporie?



Eneko Lopez de Armentia

Jolasien ibiltzie gustetan jat gehixen. Gero uztailien udalekuetan ibiliko naz.



June Errasti

Kalera urten eta jolasien ibiltzen naz uda danien. Udalekutan be apuntau naz. Eta gurasuekin hondartzara faten naz.



Oier Aizpurua

Egun dana kalien pasetan dot jolasien. Igerilekura be faten naz batzuetan.



Maite Fraile

Lagun kuadriliaz ibiltzen naz jolasien. Otalazelaira be faten gare atsaldia pasetan. Eta egun ona badau igerilekura be fan izen gare.



Erik Oribe

Jolastu eta jolastu ibiltzen naz, ez dot ezer gehixau itten. Gero oporretan Salamanca fango naz.



Jaione Garciaetxabe

Gurasuekin astebukaeretan hondartzara fatia gustetan jat. Beste egunetan lagunekin jolasien ibiltzen naz.

Aretxagazeta

217. zenbakia. 2001eko uztailaren 6an.
Durana 11, 151 postakutxatila.
ARETXABALETAKO
Tel: 943 79 86 21.
Faxa: 943 77 18 54
e-mail: aretxagazeta@euskalnet.net

Argitaratzailea: Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi elkarteak.

Lehendakaria: Edorta Mendieta.

Erredakzio-kontseilua: Mireia Uribebarria, Goretti Ayastuy, Ibon Agirre, Ana Hidalgo, Fernando Berrizbeitia.

Erredakzio arduradun eta kazetariak: Amagoia Lasgabaster, Iratxe Bengoa eta Mirari Altube.

Publizitatea: Ziortza Martin

Kolaboratzaileak: Mikel Arroiabe, M. J. Aretxaga, Joseba Lopez de Armentia, Inma Miguel, Aitor Antxia, Felis Beltran de Heredia, Rosa Del Aguila, Amaia Berezibar, Murruxio mendi elkarte, Zaria mendi taldea, Loramendi E. E., Udala.

Banatzaileak: Aitor Urrutia, Iratxe Arbulu, Leire Otaegi.

Inprimategia: Eguzkigrat, Koop. Elk.
Tirada: 1.500 ale.
Aretxagazeta paper ekologikoan egiten da.
Lege gordailua: SS378 / 94. ISSN: 1134-2609.

Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.



Aretxabaletako Udala,
Gipuzkoako Foru Aldundia eta
Eusko Jaurlaritzako kultura sailaren laguntzaz

BALONAKUK (Hikaz berbetan)



Mikel Arroiabe

Aretxagazeta

■ **EUSKAL PRESO POLITIKOEN ALDEKO MOBILIZAZIOAK** Atxabaltako Euskal Presoak Euskal Herrira plataformak eta Amnistiaren Aldeko Asanbladak mobilizazio berriak egingo ditu uztailan. Euskal preso eta errepresaliatu guztiek jasaten dituzten tortura eta sakabanaketak gogoratuz, herriko sektore desberdinei hauen alde antolatzen diren deialdietan partehartzeko eskaera egin diete. Batetik, orainarte moduan, zapatuero elkartasun pintxoak eginez jarraitzeko animatu gura dituzte herriko koadrilak. Bestetik, uztailan, ostiralero Pagaldai parean enkarteladak egingo dituzte plataformakoek. Azkenik, uztailaren 14an, Portasolgo jaiak aprobetxatuz, arratsaldeko 7:30ean, egingo den enkartelada mugikorrean parte hartzeko gonbidapena egin du Amnistiaren Aldeko Asanbladak.



Besteak beste haurrek jolasean egiteko jolas parkea jarri da plazan

Gernika plaza herritarrok erabiltzeko gertu

Aste honetan bukatu dira azkenik Gernika plazan eginbeharreko lan guztiak. Astebeteko atzerapenarekin amaitu arren, dotore gelditu da plaza. Besteak beste, jarlekuak, farolak eta haurrentzako jolas parkea jarri dira. Horrez gain, lurra txukundu eta lehenagotik han zegoen iturria ere ba-

rriztu dute. Lanak, joan den otsailean hasi ziren. Aurrekontuari dagokionez, udalak 25 milioi gastatu ditu.

Aldamenean dagoen Andra Mari auzuneko etxebizitzaren zaharberritze lanak, barrez, hainbat arazo suertatu direla-eta, ustez ez dira irailerate hasiko.

UZTAILEAN ZINE KLUBA AIRE ZABALEAN

Udako eguraldi ona aprobetxatuz, Aretxabaleako zine klubak aire zabalean eskainiko ditu uztailan zehar pelikulak. Hainbat leku aztertu ondoren, zine klubeko arduradunek eta kultura saileko teknikariak herriko plaza aukeratu dute emanaldi hauetarako. Horretarako, kultura sailak lortuko du beharrezko material guztia. Hala nola, soinu bozgora-gailuak eta filmea ikusteko pantaila zuria. Bideo erreproduzitzailerari dagokinez, duela gutxi erosi dute DVD sistemako aparailua. Eskainiko diren pelikulak, orainartekoak baino komertzialagoak izango dira. Ostegun honetan esaterako THE MATRIX filmea emango da. Gerora, SNATCH edo LA AMENAZA FANTASMA moduko pelikulak ere emango dira. Pelikula guztiak, gaueko 22:00etatik aurrera emango dira.



Taberna
Berri
jatetxea

Durana, 26 •
ARETXABALETA
☎ 943 79 20 67



MEMESA


Industri hornidurak

Tel.: 943 71 24 11
Fax: 943 71 21 19
ARETXABALETA

Mobiliario
ARENAZA

• ALTZARIAK
• DISEINUA
• APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA



SADHANA YOGA ETA PSIKOTERAPIA ZENTRUA

- Yoga
- Bioenergetika
- Psikoterapia (taldea eta indibiduala)

Lezama komertzial zentrua - Santa Kurtz, 24
20550 ARETXABALETA - Tel.: 616 965 795



MAIKA TALDEA ONCE LEHIAKETAKO IRABAZLE

Amaia Arana, Ane Zubizarreta eta Katalin Antxiak osatzen dute Maika taldea. Neska gazte hauek ONCEk, itsuen erakunde nazionalak, antolatutako marrazki lehiaketa batean hartu zuten parte. "Musica Maestros" musika konkatoari aurrealdeko marrazkia egin zioten. Gitarra bat eta musika nota batzuk. Neska hauek egindako lanarekin, Gipuzkoa mailako irabazleak izateaz gain, Euskadiko txapelkunak ere izan dira.

SKATE PARKEA DATO- RREN ASTERAKO PREST

Dagoeneko egokitu dute Santa Kurtz kalean patinetean ibiltzeko aukeraturako tokia. Lurrean zementua bota eta tramankulu batzuk aste honetan jartzekoak ziren. Lan guztiak ondo joanez gero, parkea oraingo astean bukatzea espero da.



Aurten ere jokatu da mus eta xake txapelketak Portasolgo jaietan

Portasolgo jaiak uztailaren erdi-erdian

Uztailaren 13, 14 eta 15ean ospatuko dira aurtengo San Lorentzo jaiak. Azken urte hauetan moduan arazo ugari izan dira jaiak antolatzeke, baina aurten ere Loramendi aldeko koadrila bat gertu azaldu da. Hogeita bost bat gazte aritu dira kultura sailarekin batera egitaraua prestatzen. Egitarau honek gainera, aste honetan jaso du behin betiko onarpena udal-txean. Gazte hauek, urtero egin ohi duten moduan jaiak antolatzeke dirua bartzten ere ibili dira. Eta laguntza hau eskaini duten

guztiei euren esker ona adierazi gura diete.

Egitarauari dagokionez, jai hauetan zapatua izango da egunik garrantzitsuenak. Goiz eta arratsalde partean sokamuturra egingo da Gorbea kalean. Musika, barrez, txarangak eta musika taldeek jarriko dute. Egua-kotx gauean esaterako Laiotz taldea izango da Zaraia-ko plazan, eta zapatuan, barrez, EGAN taldearekin izango da dantzaldia. Horretaz gain, ez dira faltako ohiko mus eta xake partidak domeka arratsaldean.

KINTOEKIN ISTRIPU ETA ARAZOAK

Aurtengo San Juan bezperako ospakizunetan ere, kalte ugari sortu zituzten kintoek. Azken urte hauetan gertatzen ari den moduan, kintoek inongo kontu barik bota zituzten etxafferoak. Horren ondorioz, zakarrontzi eta estolda ugari apurtu dituzte herri guztian zehar. Herritar batzuk beraien kexa helerazi dute eskutitz bidez udaletxera. Tantaia altxatzerakoan bestalde, tantaia erori eta kinto bati hankan erori zitzaion. Mutil honen amak ere, udaletxera jo du istripua gertatu zen unean udal-txeko arduradunik plazan azaldu ez zelako.


JAUNARTZEAK UZTAILE- AN EGINGO DIRA

Elizako zaharberritze lanak direla eta, maiatzean ospatu beharreko jaunartzeak uztailean atzeratzeratu ziren. Orain konponketa lan horiek atzerapen handia jasan dutela jakin da. Horregatik uztaileko oraindik, eliza ez da prest egongo. Hala ere, azkenean, parrokoak eta haurren gurasoek jaunartzeak Mitarte kalean dagoen behin behineko parrokiak egitea erabaki dute.



ARLUTZ


MITARTE, 16 - ARETXABAETA - TFNOA.: 79 32 34



TXILARRA

ELIKADURA BEREZIA

Durana, 35 - Tfnoa: 943 79 10 15
Loramendi, 9 - Tfnoa: 943 79 44 28



GAZTETXEKO LAGUNAK ZUGARRAMURDIN

San Juan bezperan Zugarramurdira egin zuten urteera gaztetxeke 16 bat lagunek. Hango festak esan ohi dutenez izugarriak izaten dira. Hauek ere ez zuten txarto pasatu. Hurrengo zapatuan gommin egitera joan ziren Azkaratera.

PERLARA EGUN PASA

Egun ederra pasatu zuten aurrekoan argazkiko lagunek. Zainduz zentruak antolatuta Donostiako La Perlako talasoterapia zentrura joan ziren. Guztiak ondo deskantsatu bueltatu ziren etxera.



SABIÑANIGOKO KLASIKAN PEDALEI ERAGINEZ

Quebrantahuesos proba ospetsuan atxabaltar ugari izan dira aurten. Hona hemen horietako batzuk atera zuten argazkia. Alfredo Meabe, Jose Antonio Lopez, Marka eskoriatzarra, Mikel oñatiarra, Jon Armendia, Isidro Garate eta Luis Felix Unanue. Eurekin batera Juan Morales eta Jorge Oiarbide ere egon ziren.

INDUSTRIA HORNIKUNTZAK



URKULU, S.L.

Mitarte, 23
Tel.: 943 79 96 66
Fax: 943 77 10 33

KAURRAK



**UMEENDAKO
MODA**

Lezama merkatal
zentrua, 15
943 77 14 86

DOIKALSE

**Elektroerosio
lanak**

Basabe Poligonoa C-1-1
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 82 44

PAGALDAI

*Opari denda
Lurrindegia*

Durana, 33 ☎ 943 79 10 14



DATORREN URTERARTE SAN JUAN

Arratsalde girotuaz eta gau beroaz agurtu genuen San Juan bezpera. Loramendi dantza taldeko neskek San Juan dantza egin zuten sua piztu aurretik. Gau erdi aldera, kintoek kostata altxatu zuten pinua, eta zoritxarreko istripu bat ere izan zen tartean. Ea hurrengoek pinu txikiagoa mozten duten.

LEIBAR

arrandegia



Mitarte Kalea, 1
Tel.: 943 77 13 79

ARGAZKI DENDA

Urkiola

Estudioa
Jaunartzeak
Ezkontzak
Argazki digitalekin lanak

Albunak
Argazki kamarak
Markoak...

Herriko plaza, 5-behea
Tel.: 943 79 39 20

Jou Diaz



Karakina

Loramendi 1, • Tel: 943 79 71 69
20550 ARETXABALET

GRUPO **RKUZ** 1950-2001



ETXE MOBEL
MUEBLES ALTZARIARI

Araba Etorbidea 5 •
Tel. / Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE




RKUZ
ALTZARIARI

Araba etorbidea 20 •
Tel. / Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA



RKUZ
ELEKTRAGAILUAK
Asunción, 1 •
Tel. / Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA

expert 



RKUZ
SUHARDE INTEGRALA
Mitarte 3 •
Tel. / Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA

FAGOR 

50 urte baino gehiago gure bezeroen zerbitzura.

Eskerrik asko emandako konfiantzagatik

Euskal Filologia ikasten dihardu Larraitzek. Hala ere, betidanik gustatu izan zaizkio umeak. Txikitan udalekuetan ibili zen. Gerora begirale ere izan da. Orain, berriz, gorengo postuan aurkituko dugu. Bera da aurtengo udalekuko zuzendaria.



Larraitz Iñurrategi Udalekuetako zuzendaria

■ **Aurten zenbat umek eman dute udalekuetan izena?**

■ 170 bat apuntatu dira. Iaz baino zertxobait gutxiago. Hala ere, talde majoa da. Adinaren arabera hainbat talde egin ditugu. Eta hauen zainketa egiteko guztira 25 begirale daude. Begiraleak 16 eta 22 urte bitartekoak dira.

■ **Zein da zuzendari batek egin beharreko lana?**

■ Begirale guztien lana koordinatu eta zaindu beharra daukat. Beti ere, batzorde baten laguntzarekin, beraz, ez da horren lan zaila. Gehienbat gurasoen haurren ekintzen inguruko informazioa banatzeak emango dit lan gehien. Gero, autobusak antolatuta, baimenak eskatu, guztia kontrolatu... horiek izango

dira nire eginbeharrekoak.

■ **Berrikuntzarik izango dute haurrek aurtengo udalekuetan?**

■ Bai, "kirolez blai" izeneko programa jarri dugu martxan. Bost kirolez osatutako egitaraua da. Beisbola, tenisa, pistina, patinajea eta pelota. Arratsaldean, adin desberdinetako talde bakoitzak kirol bat egiteko aukera dauka. Gainera, kirol hauek ez dira betikoak. Futbola moduko kirolak baztertzen saiatu gara. Izan ere, haur hauek egunero izaten dute futboleko aritzeko aukera.

■ **Zer behar da umeekin lan egiteko?**

■ Batez ere pazientzia handia. Gero eurekin jolasten jakin behar da, ezin da egun guztia umore txarrez

eta bronkak botatzen ibili. Umeak udalekuetara jolastera datoz, inor ez dator eskolara moduan behartuta. Azken batean, etxean edo eskolan egiten ez dutena egiteko aukera ematen diegu hemen.

■ **Ardura handia da umeekin hara eta hona ibiltzea?**

■ Bai batez ere txikienekin. Horregatik talde bereziak egin ditugu eta begirale gehiago jarri ditugu lanean txikienekin. Izan ere, ume bat komunera eraman behar baduzu, gainontzeko taldekideak bakarrik gelditzen dira eta txikienekin ezin da hori egin. Horrez gain, hauekin beti ibili behar zara ekintza desberdinak prestatzen. Gehienak, egun horretarako prestatuta dagoen ekintza egiten

hasi eta bi minututara aspertuta daude. Nagusiekin gauzak errezagoak dira, mendi urteera bat antolatuz gero egun guztian entretentuta dituzu.

■ **Zu zeu gaztetan ibili zinen udalekuetan?**

■ Ez askotan, baina pare bat udatan izan naiz herriko udalekuetan. Oso oroitzapen onak ditut gainera.

■ **Zer da poxpolin taldea?**

■ Oraindik guztiz eratu berririk dago, baina irailerako zerbait martxan jarriko dugu. Gure asmoa gazteleku bat egitea izango da, baina oraindik gauzak ez daude argi.

■ **Zuk zure aisialdia zertan ematen duzu?**

■ Bapatean suertatzen diren planak ditut gogoko.

Nora zoaz oporretan?

Nora zoaz oporretan? Non pasa behar dituzu oporrak? Hauek dira gaur egun guztion ahotan dauden galderak. Uda heldu da, eguraldi ona inguratu zaigu, eta abuztua ere oso gertu dugu. Nahiz eta denek ez izan oporrak hilabete berean eta urtetik urtera hori nabariagoa izan, gehienontzat abuztua urteko hilabetea izaten da oporretan joateko, eta guztiok irrika handiz itxaroten dugu. Hori horrela izanik, abuztuan prezioak goraka egiten dute edozein destinu dela eta.

Hala ere, jendea ez da etxean geratzen eta geroz eta jende gehiago mugitzen da, zazpi, hamar edo hamabost egun etxetik kanpo pasatzeko.

Beraz, azken oporralditxoan, hau da, Aste Santua, pasa ondoren opor luzeetako ideiak jasotzen hasten da. Batzuk oso argi izaten dute nora joan, zer ikusi, zenbat gastatu... Beste batzuk, berriz, bidaiariajenti batean sartu eta dozena erdi katalogorekin ateratzen dira aukera egiteko. Badira oraindik banaka batzuk azken momentuko txoiloko itxaroten dituztenak ere, nahiz eta horrelako gutxi izan.

Denok berdinak ez garenez, eta baikoitzak oporrak igarotzeko era desberdina dugunez, aukera desberdin ugari izaten da. Nahiz eta oraindik gehiengoak mediterraneo edo hego aldeko eguzki eta hondartzak gogoko izan, jende asko mugitzen da kanpora, bai Europa, Afrika, Hego Amerika... aldera.

Europako erdialdea izaten da aukeratuena, horien artean Chequia, Hungria, Austria... Polonia eta Ukraina. Azken urteotan ex-Erussiako beste herrialde batzuekin batera.

Eta nola ez, Afrikako bazter asko eza-gutzeko ikusmina oso nabaria da, bertako herrialde desberdinez osaturiko katalogoak ikusi besterik ez dago: Tunez, Egipto, Marruecos, Senegal, Cabo Verde, Biorkina Faso, Kenia, Afrika Hegoaldea... Eta nola ez Seychelles irletako hordartza paradisiakoak.

Orain, merkeenetakoak eta urrin joan barik urten gura izanez gero, Salou eta Benidorm dira egokienak. Zerbait exotikoagoa gustuko izanez gero, Islas Mauricio eta abentura zaleentzat Afrikako Hegoaldea aukeratuko nuke nik.

Hauek guztiak ikusi nahi dituzula eta oraindik ezer egin barik? Abuztua gainean da eta mugitu zaitetz.

Osane AYASTUY



GARBITU S. KOOP

*Garbiketa
orokorrak*

Errekabarren 3- Behea
Tel: 943 79 01 28

ITURGINTZA

J.J
Jose Jabier Irure

URA, GASA ETA KALEFAZIOA

943 79 31 87

OSKAR
GARAJEA

Tel.: 943 79 98 74
Fax: 943 71 24 59
Basabe Poligonoa, A-2-4

Lie

LURRINGEGIA
OPARI-DENDA

Mitarte, 18 ☎ 943 79 38 59



Oraindik eskuz ere buelta ematen diote bedarrari baserriar batzuk.

Eguzkipean bedarretan

Udak baserrietara dakarren lanik astu-nenetakoa bedarra batzea da. Behi, ardi eta gainontzeko abereek neguan ere jatekoa izan dezaten udan bedarra batu behar, ez dago beste aukerarik. Familia osoa elkartu eta zelaira lanera eguzkipean. Azken urteotan, ostera, bedarra batzeko tresneria hobetu egin da eta bedarra gordetzeko sistema ere aldatuaz doa. Garai batean eskuz batu eta gurdia-

rekin ibiltzen baziren bedarra baserrira ekartzen, orain, askotan, igarten utzi barik plastikoz estalitako bolak egin eta zelaian bertan uzten dira. Bolak egiteko sistemak asko samurtu die lana baina horretarako tresneria ez dauka edozeinek. Aretxabaletan lau bat izango dira eta inguruko baserri gehienetara joaten dira bedarra moztu, buelta eman edo bolak egitera.

Udaberri udako beroak ailegatzen direnean bedar lanak hasten dira baserrietan. Bedarra moztu, igartzzen utzi, buelta eman, batu eta ganbaran gorde. Eta hori guztia eguzkiak bete-betea ematen duenean. Garai batean, behintzat, hala izaten zen, baina gaur egun asko aldatu da, bedarra batzeko tresneria ere aldatu egin da eta.

Gari soroetatik zelaietara

Orain berrogeita hamar bat urte baserri inguruetan arto, patata, erremolaxa eta gari soroak ziren nagusi. Zelaiak, barrez, gutxi. Behiek soro ertzetan topatutako bedarrak jan behar izaten zituzten, eta basora ere eroaten ziren. Garia batzean sortzen zen lastoa ere ematen zitzairen, baina sarritan ez zen euren gustukoa izaten. Gure bailaran lantegiak agertzearekin batera, baserrietako mutilak lantegietan hasi ziren lanean. Baserriko soro guztiak behar bezala ezin zaindu eta poliki-poliki zelai bihurtzen hasi ziren. Udazken negu garaian, ostera, zelaiako bedarra asko gutxi-

tzen da eta behiek urte guztian jatekoa izan zezaten udan bedarra batzen hasi ziren.

Gurdiarekin atzera eta aurrera

Zelaiako bedarra batzeak bizpairu egunetako lana zeukan eta familia osoa batzen zuen lanean. Lehenengo segarekin moztu behar zen bedarra. Moztuaz bat, zabaldu eta eguzkipean igartzzen uzten zen. Hurrengo egunean eskua-rea eskuan hartu eta buelta ematen zitzaion beste aldetik lehortzeko, eta guztiz lehortuta zegoenean bedarra errailatu edo iladak egin eta gurdira batzen zen sardearekin. Gurdiaz baserrira ekarri eta ganbarara jaso behar negurako gordeteko, eta ganbaran leku gutxi ego-

nez gero, metak egiten ziren. Lan honek, ostera, bizpairu egunetan eguzkia izatea eskatzen zuen, edo euririk ez egitea behintzat.

Tresneria aldaketa

Poliki-poliki, ostera, baserrietan ere, lana kendu ez bada ere, samurtuko dieten tresneria berria sartzen hasi dira. Horrela bada, bedarra mozteko sega ibili beharrean motordun eskuzko segadorak erabiltzen hasi ziren. Ganbaran ere lekua hobeto aprobetxatzeko lehortutako bedarrarekin fardoak egiten hasi ziren baserritarrak. Fardoak, sokaz lotutako igartutako bedar multzoak dira. Behi asko zituztenek siloak ere egiten zituzten, bedarra lehortu barik batu eta horretarako egindako zuloetan gorde plastikoz

estalita.


Bedar bolen booma

Urte batzuetatik hona, ostera, baserri gehienetan bolak egiten hasita daude. Igartutako bedarraz edo bedar berdeaz egin daitezke bolak. Azkenengo hauek plastikoz estaltzen dira barruan bedarra fermentatu dadin kanpotik arnasarik hartu barik. Bolek, lana asko samurtu die baserritarrei.

Bolak egiteko, ostera, tresneria berezia behar da, batetik, bolak egitekoa eta bestetik, plastikoa ezartzekoa. Baserritik bizi direnak izan ezik, oso gutxiak daukate tresneria hori, inbertsio handia eskatzen du eta. Aretxabaleta inguruan laupabost izango dira tresneria daukatenak, bi Arkarazon, Txainuena eta Erderena, eta bi Arientzan, Arientza-Etxebarri eta Peruena. Hutsetik hasi behar denarentzat, ostera, hamar milioi inguruko inbertsioa egitea eskatuko lukeela dio Txainuena baserriko mutilak.

Arkarazoko Txainuena baserrian poliki-poliki joan dira erosten baserri-

Bolek, bedar lana asko samurtu die baserritarrei



ko tresneria eta orain bedarra moztekoa, buelta ematekoa, batzekoa, eta fardoak eta bolak egitekoa daukate. Maiatzean hasi ziren bolak egiten eta uztaila erdirako bukatuta egongo direla bedar lanak baserri gehienetan, diote. Aurten hogei bat baserrietara joan dira bolak eta fardoak egitera, Gatzagara ere ailegatu dira. Prezioa, tresneria daukaten inguruko baserriarren artean adosten dute urtero, baina ondoren baserriarrarekin berba eginda jartzen dute, zelaia eta egin gura den lana ikusi ostean. Bedarra moztu, buelta eman eta batu, dena egin behar badute orduko kobratzen diete. Baserriarrak berak lana eginda badauka eta bolak besterik ez badituzte egin behar ostera bolako 2.300 pezeta inguru kobratzen dute aurten.

Plastikoz estalitako bolak egunean bertan egiten dira, goizean bedarra moztu eta ordu batzuetan eguzkitan utzi ostean, arratsaldean bolak egin. "Zelai batzuetan geuk egiten dugu dena, moztu eta bolak egin, baserriarrak begiratu besterik ez du egiten" dio Txainuenekokak. Bedarraren hezetasuna hartzen da kontuan bola egiterakoan, bere tamainan izatea komeni da eta. Hezetasunaren eta tamainuaren arabera, 700-800 kilo inguru izaten dituzte bolek. Beraz, bedar lanak samurtu egiten baditu ere, mugitzeko orduan arazoak dakartza bolak. Bedar fermentatua hausnarra egiten duten abereentzat izaten da, beraz, behientzat oso egokia da. Ardiei ere ematen



**"Zelai batzuetan geuk egiten
dugu dena, baserriarrak begiratu
besterik ez du egiten"**

diete baserriar batzuk, beste batzuk ostera gurgu dute igartutako bedarra ematea. Zaldi eta behorrenzatzat, ostera, ez da batere ona. Siloetako bedar hori bedar berdearen lekuan ematen zaie udazken eta neguan zelaietan gutxituta dagoenean, baina igartutako bedarra ere ona izaten da beraz, bietatik ematen zaie abereei. Udan batutako bedarra urtean zehar jaten da. Plastikoz estalitako bedarrak denbora gehiago ere iraun dezake ondo gordeta egonez gero, baina plastikoa ondatzea gerta daiteke eta barruko bedarra usteltzea. Horregatik urte batetik bestera ez ei da bedarrik gordeten.

Gero eta behi gutxiago

Poliki-poliki baserri askotan behiak kentzen ari dira. Lan haundia eta etekin gutxi ematen dutela begi bistakoa da. Hala eta guztiz zelaiak bertan jarraitzen dute, beraz, zer egiten da bedar horrekin? Urtean behin behintzat, zelaiak garbitzea komeni izaten da, beraz, abererik ez daukaten zelaien jabeek abereak dituztenei ematen diete. Saldu ere egiten da, eta kostaldetik baserriar asko etortzen da gurera bedarraren bila.

Bedarrak daukan lana asko samurtu bada ere azkenengo urteetan oraindik lan oso lotua izaten jarraitzen du. Behiek, gainera, sarritan etekinak baino buruhausteak gehiago ematen dizkiete baserriarrei. Hala eta guztiz baserriko lanetik bizi gura duten baserri eta baserriar bat baino gehiago geratzen da gurean.



Piraguismoa

Urkulun piraguan ibiltzeko baimenaren zain. Murruxiko elkarteko piraguis-mo sailak Urkulun piraguan ibiltzeko eskaera luzatu dio Ur Patzuergoari. Oraindik ez dute baimen ofizialik jaso, baina laster batean baimen hori lortzea espero dute. Hala ere, baldintza batzuk bete beharko dira Urkulun piraguan ibili ahal izateko. Alde batetik, federatua izan beharko da, eta bestetik, Murruxikoko piraguekin bakarrik ibili ahal izango da.



Futbito

Udako futbito txapelketa astelehenean hasi zen. Uztailako arratsaldetan futbito txapelketaz gozatzeko aukera izango dugu Andra Mariko kantxan. Aurten hamairu taldek eman dute izena, tartean herrikoak, Arrasatekoak, Aramaioko eta Eskoriatzako taldeak ere bai. Astegunetan arratsaldetan 17:30etik 21:30era jokatu dira partidak, eta Santiagoak arte luzatuko da txapelketa. Egun horretan jakingo dugu nor izan den irabazlea.



Txirrindularitza

Iban Sastre eta Asier Atxa Espainiako txapelketatik bueltan. Espainiako txapelketan ez dute zorte handirik izan Iban eta Asier Atxak. Iban karrerako 100. kilometroan jausi egin zen pelotoiko beste txirrindulari batzuekin batera, eta Asier Atxak, karrera bukatzea lortu zuen, nahiz eta bederatz minututara sartu. Orain beste karrera batzuk dituzte aurrez aurre. Ibanek Portugalen itzuli bat korrituko du, eta Asier inguruko karreretan izango dugu.



Mendia

Iñurrategi anaientzat kirolaren irudi onaren aldeko saria. Uztailaren 3an Eusko Jaurlaritzak kirolaren sariak banatu zituen. Juan Jose Ibarretxe lehendakariak eta Mari Carmen Garmendia kultur kontseilariak hainbat sari banatu zituzten euskal kirolarien artean. Alberto eta Felix Iñurrategi ere saritu zituzten, euskal kirolaren irudi onaren alde egin duten lanagatik. Saria jasotzera gurasoak joan ziren Ajuria Eneara. Zorionak.

Aurtengo oporrak modu desberdin batean pasa ditu Ramon Iturrikastillok. Debaiko bi lagunekin batera ipar Ameriketako mendirik altuena zapaldu du, Mc Kinley edo jatorriz Denali izenekoa. Alaskan dagoen 6.194 metrotako mendia da.

■ Kontaiguzu bidaiaren nondik norakoak.

■ Maiatzaren 19an abiatu ginen hemendik Estatu Batuetako Alaskan dagoen Denaliko parke naturalera. Han hamazortzi egun egin ditugu, eta oso lasai ibili gara mendia egiteko. Lehenengo egun batzuk egin genituen beheko kanpamenduan aklimatatzeko asmoz. Gero eguraldi txarra zela eta 4.000 metrotan egun batzuk pasatu behar izan genituen. Beste egun bat egin genuen, 5.200 metrotan, eta handik tontorrerako saiakera egin genuen.

■ Nolatan joan zarete Ipar Ameriketako mendirik altuenera?

■ Ez da arrazoi berezirik

egon. Lagun bat orain urte bi joan zen hara, eta oso polita zela esan zigun. Maiatzean hartu ditugu aurten oporrak, eta hara joateko garairik egokiena da hau. Izan ere, ez du iluntzen, eta egun guztian egoten da argi. Horrez gain, glaziarrak oraindik urtu barik daude eta mendian ondo ibili daiteke.

■ Zailtasun haundiko mendia da?



■ Ez, guk betiko bidetik igo dugu mendia, eta ez zaigu zaila iruditu. Teknikoki zailagoa izango zela espero genuen, eta hotz gehiago pasatuko genuela. Izan ere, oso mendi hotzaren fama dauka Denalik. Baina guri ez digu horren hotz haundia egin, eta eguraldi nahiko ona izan dugu. Altura arazorik ere ez dugu izan, normala den moduan insomnio

apur bat.

■ Mendi hotza den fama badauka, zelako tenperaturak izan dituzue?

■ Uste genuena baino epelago egin digu. Gauetan pasatu dugu hotz apur bat, baina erropa aldetik ondo gertatuta joan gara. Hamazortzi gradu zero azpitik egiten zuen denda barruan. Garai honetan 24 ordutan argi egoten da han, ez du iluntzen, baina gaua noiz den hotz-beroan igartzen da, tenperaturak azkar egiten du behera gauean.

■ Zelako parajea da Denaliko parke naturala?

■ Oso polita. Dena oso oso garbi eta ondo zainduta dago. Kaka ere plastikoa jaso eta jaitsi egin behar da. Hori bai, espero baino jende gehiago aurkitu dugu, Estatu Batuetakoak, Koreanoak, Japonesak... behean batez ere jende asko zegoen.

Ramon Iturrikastillo Oporretan Mc Kinley mendira

■ OÑATIARRA NAGUSI SQUASH TXAPELKETAN

Garikoitz Ibarzabal oñatiarra izan da squash txapelketako irabazlea. Garikoitzek Santos Aranburu zarauztarraren aurka jokatu zuen finala ekainaren 23an. Oñatiarra 3-0 nagusitu zitzaion Santosi. 3. eta 4. postuetan, barrez, Julen Iriondo oñatiarra eta Xabier Isturitz arrasatearra aritu ziren lehian. Azkenean Julen sailkatu zen hirugarren eta Xabier laugarren. Beraz, beste behin ere kanpotarrak izan dira nagusi herrian jokatu den squash txapelketan. Guztira hamabi partehartzaile izan dira txapelketan, eta horietatik atxabaltar bakarra, Iñaki Uribetxebarria.



Hiru bikoteek finala jokatuko dute datorren domekan

Herriko pilotariak herri arteko txapelketako finalean

Herri arteko pilota txapelketako finalera iritsi dira herriko pilotariak. Final aurrekoetan Azkoitia gainditu ondoren, datorren domekan Anoetako Atano IIIean izango dute finala Sorluzeren aurka goizeko 10:30ean.

Kadeteetan Andoni Altube eta Haritz Kortabarria arituko dira Aitzol Arrieta eta Jon Orbegozo bikotearen aurka. Jubeniletan Haritz Igartua eta Odei Oionek Jon Aranbarri eta Ladis Unanueren aurka neurtuko dituzte indarrak. Nagusiek, Unai eta Ibon Errastik, Iñaki Larramendi eta Ruben Zafirain izango dituzte aurrez aurre.

Partidura joan gura dute-

nentzat autobusa jarriko da doanik. Goizeko 8:30etan aterako da Azbetik eta buelta 18:00etan izango da. Donostian buelta bat emateko edo sagardotegira joateko aukera izango da tartean. Autobuserako Gurean edo Errastinean izena eman daiteke, eta partidurako sarrerak Gurean eros daitezke.

Finalean lehenengo aldiz

Finalera lehenengo aldiz heldu dira bi herriak. Orain urte bi Aretxabaleta laugarren gelditu zen herri arteko pilota txapelketan, iaz hirugarren eta aurtan txapela herri-erriko dutela espero dugu. Zorte on!



■ UDAKO ZUZENDARITZAK BESTE URTEBETEZ JARRAITUKO DU

Ekainaren 22an batzar orokorra egin zuen Udak. Batzarrean jorratu zen gai nagusia zuzendaritza batzorde barriaren hautatzea izan zen. Hautagai barririk azaldu ezenez, gaur eguneko zuzendaritza beste denboraldi baten jarraitze-animatu zen. Batzarrean 50 bat bazkide egon ziren. Guztien artean honako puntuak onartu ziren: gaur arte Udak eraman duen kirol politika onartu zen, jokalaria infantil mailatik hartu, lana egin eta erre- gional preferente mailararte promozionatu. Horrez gain, kirol alderdian zen ekonomikoan gaur egungo zuzendaritza batzordeak azken zazpi urtetan egindako gestioa ere onartu zen. Bestalde, Aretxabaletako gazte batzuek beren kasara futbol taldea sortzeko asmoa ere izan dute hizpide, eta egia esan, ez dute oso begi onez ikusi.



MAITE
ileapaindegia

Sarasate, ☎ 943 79 59 05
ARETXABALETA

IBARRA
estankoa



PRENTSA ETA
IKASMATERIALA

Egunero zabalik

Bizkaia, 3 Tel.: 943 79 23 77

Jauregi
Okindegia

Otalora, 10
Tel.: 943 79 57 47

BENGOA
URDAITEGIA

Bertako okelak
eta mortzilak

Durana, 9
Tel.: 943 79 19 79

*Arrasatekoa da, 21 urte ditu eta hizkuntzen psikopedagogia ikasten ari da. Udalak Esko-
riatzako Humanitate hezkuntza zientzien fakultatearekin egindako hitzarmena dela eta
iazko urritik kultur teknikariari laguntzen dabil uztaila bukatu arte.*

Eider Markaide

"Nahiago dut ikastea nahiz eta azterketak egin beharra eduki"



■ Zertan zabilta Aretxabaletan?

■ Udaleko kultura sailean bekadun moduan lanean, udalak eta Mondragon Unibertsitateak egindako hitzarmen bat dela eta.

■ Noiztik zaude?

■ Iazko urrian hasi nintzen eta uztailan bukatuko dut.

■ Zer da hizkuntzen psikopedagogia?

■ Bigarren mailako lizentziatura da eta ikasketak bukatu ostean euskara normalizatzeko profesionalak aterako gara.

■ Ikasketak bukatzean zertan gustatuko litzaizuke lan egitea?

■ Haur hezkuntzan irakasle moduan egingo nuke gustura lan.

■ Uztailean zer egitea tokatuko zaizu?

■ Udaleku irekietako arduradunetako bat izango naiz.

■ Zer ikasi duzu udaleko langileengandik?

■ Udaletxe batek nola funtzionatzen duen.

■ Oporretan nora joango zara?

■ Ziur oraindik ez dakit, baina seguru asko Marokko aldera.

■ Lan egitea edo ikastea, zer duzu gurago?

■ Ikastea, nahiz eta azterketak egin beharra eduki.

■ Zer dauka Aretxabaletak Arrasatek ez daukana?

■ Ezer ez.

■ Bizitzeko herri bat?

■ Mondragoe.

■ Zer egiten duzu denbora librean?

■ Lagunekin egon, zinemara joan eta atsedean hartu. Herrietan jaiak direnean jaietara joan noski.

■ Gustukuen dituzun jaiak?

■ Mondragoeko Maritxu Kajoi eta Santamasak. Aretxabaletan San Migelak.

■ Herrietako jaietara lagunekin edo mutilarekin?

■ Lagunekin, baina momentu batzuetan mutilarekin egotea ere gustatzen zait.

■ Amets bat?

■ Egunen batean bidaia luze bat egitea, Karibera edo.


■ Futbolera edo zinemara?

■ Zinemara.

■ Uda eguzkipean edo gerizpetan?

■ Eguzkipean.

Haizea taberna



Gustoko giroa

Mitarte, z/g •
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 88 60

IRIARTE

Umeen
denda
eta
lentzeria



Durana, 8
Tel.: 943 79 10 96

BITXITEGIA ERLOJUDENDA

MIREN & ZURIÑE
BITXIEN DISEINUA

BITXIEN KONPONKETA

Otalora, 4 (eliza aurrekaldean)
Tel.: 943 77 13 57

13. IBILBIDEA

ARETXABALETA-UNTZILLA-BELAMENDI-ZABALAUNDI-
ANBOTO-ZABALAUNDI-BELAMENDI-SUIÑA-ARETXABALETA

Luzera: 28.6 km - Denbora: 7 ordu:50'



Aretxabaletatik Untzillara abiatuko gara. Hemendik Suiña auzoa pasatu eta Santa Agedako Bidekurtzera jaitziko gara (6.4 km-1:20'). Behin bidekurtzera helduta, Aramaio aldera jo behar dugu. 200 bat metrotara, lehen errebueta dagoen lekuan, eskumatara porlanezko aldatz gogor bat ikusiko dugu. Aldatz horretatik igoko dugu. 1.4 kmtan ikaragarritzko aldatza dago. (2:00') Baserri batera helduko gara. Bi bide aurkituko ditugu han, batak eskumatik aurrera egiten du (bide hau ez da hartu behar), eta bestea, ezkerraldera eta goruntz doa. Guk pista hau hartuko dugu. Laster pinudi batean sartuko gara, eta pista dexente daude bertan, beraz, bide gurutze batera heltzean beti goruntz dijoan pista hartu, eta txabola batera heldu artean jarraituko dugu (baserri-tik txabolara 700 metro daude).

Txabolara heltzen garenean, begi bistan izango dugu Belamendi, beraz, txabolatik aurrera egin eta bidekur-



Anboto

tzean aurrera eta gora doan pistatik joan behar da. Aurrerago bidekurtze batean eskumako pista hartu, eta Belamendi baino 150 metro beherago agertuko gara. Hemendik senda bat dugu gora igotzeko. Txabolatik ezkerretara doan pista jarraitzen badugu ere, eta askoz aurrerago beheruntz doan pista utzi eta goruntz doana

hartzen badugu ere, puntu honetan agertuko gara. Beraz, lasai inguru honetan pista asko egon arren, goruntz hartuz gero Belamendi azpian agertuko gara. Ezkerreko pista beheruntz jarraitzen badugu, barez, Aramaioa eramango gaitu. Behin garbigunera heltzen garenean, 150 metro besterik ez ditugu Belamendiraino (9.2Km-2:30').

Belamendi 871 metrotara dago, eta bertako gurutzea 1935. urteko irailaren 15ean jarri zuten aramaioarrek. Hala ere, gurutzea atxabaltarrek egin zuten. Gero gurutzea jausi edo bota egin zuten, baina 1977ko martxoaren 5ean berreraiki zen. Belamenditik parean ikus ditzakegu, Zabalundi eta Anboto. Beraz, Belamendi azpitik doan pista jarraituko dugu, eta GRaren marka gorri ta zuriak jarraituz, aurrera egingo dugu, eta laister agertuko gara bidekurtze batean. Beheruntz joanda Gantzagara, eta



Nafarroa kalea, 4 b.
Postakutxa 103
Tfnoa.: 943 79 03 34


aurreruntz eginez Zabalaundira goaz. Guk bidekurtze honetatik aurrera pistatik jarraituko dugu bidean dauden seinaleak jarraituz. Halako batean, Ipintza eta S. Kurtzeko koba adierazten duen seinalea ikusiko dugu.

Hemendik Zabalaundira joateko egokiena, pistako barrera pasa eta pista Zabalaundirarte jarraitzea da, askoz errezagoa eta erosoago baita.

Zabalaundi gunera heltzen garenean, txabola bat, edateko ur deposito bat eta zabalgunek ikaragarria daude (12.8 km -3:10'). Hemen argi ibili beharra dago, izan ere marka zuri eta gorriak jarraitzen baditugu, Anbotora zuzen joango gara Zabalaunditik gora. (Broma gutxi hortik gora).

Kontuz! bertigoa duginontzat ez da bide komenigarriena, zeren eta malda oso oso gogorra baitago hortik gora, eta harri solte artean ibiltzeko beldurra ekar dezake, eta beldurraren eraginez blokeatu egin gaitzke, eta benetako arriskua izan dezakegu.

Beraz, guk pistan aurrera egingo dugu. Buelta handiagoa izan arren, askoz erosoagoa da Anbotora Urkiolatik igotzea. Pistaz aurrera egin eta Urkiola aldeko gunek bateko bidekurtze batera helduko gara. Hemendik aurrera Anbotorako bidea markaturik dago, eta gainera, jendearen era-



Belamendi


ginez harkaitzak ere gastaturik daude.

Hemendik Anbotorako bidea erreza dela esan dezakegu, eta azkenean harkaitzetatik pasatu behar bagara ere, ez du inongo zailtasunik Anboto puntara igotzeko. (14.3 Km - 4:15').


Anboto puntatik ikus daitezkeen parajeak zoragarriak dira. Merezi du bizitzan behin behintzat honelako ikuskizun bat ikustea.

Bueltarako, makina bat bide daude Anbototik jaisteko, Atxondora, Aspera, Urkiolara, Aramaioko Gaintza auzora... Baina gu joandako bide berdinetatik etorriko gara Aretxabaletara. (7:50').

Bide hau egiteko ura, lasaitasuna eta indar pixka bat edukitzea komeni da. Animo!



Muru



Anboto bidetik ikusita

Okindegia - Gazotegia

Aretxabaleta

Loramendi, 6 - ☎ 943 77 17 19
Basabe, 2 - ☎ 943 77 00 81

Aretxabaleta
Bertako okina

**Apotzako
San Migel
merenderoa
alokatzen da**

943 71 49 96

Aretz

taberna

Markole, 5
Tel.: 943 79 20 14

Zenbaki

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

Aholkularitza

Basabe poligonoa, F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETA
Tel.: 943 71 21 12 - Fax: 943 71 22 68

Maritxu

drogeria

mertzeria

Araba Ibilbidea, 24

IZOTZ

Taberna

Mitarte, 16 • Tel.: 79 73 65
Aretxabaleta



Uda giroan sartuaz

Gaurkoan herri kirolei iritsi zaie tartea nire eguneroko honetan. Pilotaren gainean arituko naiz. Herriko pilotariak herri arteko pilota torneoan finalera iritsi dira, eta datorren domekan, hilak 8, izango dute finala Anoetan, Atano III. ean, profesionalek jokatzen duten txokoan. Han arituko dira, kadeteetan **Andoni Altube eta Haritz Kortabarria**, jubeniletan **Haritz Igartua eta Odei Oion**, eta nagusietan **Unai eta Ibon Errasti**. Lehenengo aldiz heldu dira finalera pilotariak txapelketa honetan. Orain urte bi laugarren gelditu ziren, iaz hirugarren eta aurten ia ba txapeldun izaten diren, horrela egiten duen beroa zuen kopatik edandako txanpainaz arinduko dut. Hauek irabaztea nahi nuke, izan ere Aretxarte elkartearen zozketan galtaile atera naiz. Jada guztia ondo antolatua neukan, baina oraingo honetan aurrea **Mari karmen Apraiz** eskoriatzarrak hartu dit, bera izan delako zozketako irabazlea. Hala ere, itxaropena badut oraindik, bigarren saririk eman ez dutelako, ez da inor agertu eta. Diru horrekin aurrerago beste sari

bat emango dute. Hortaz ondo begiratu Aretxarteko zenbakiei eta ez ONCEko txartelari!

ONCEko txartelari ez baina elkarteak emandako sariari **Ane Zubizarretak, Katalin Antxiak eta Amaia Aranak** begiratu diote, sari bat irabazi dute eta. Zorionak neskatilak! "Musika Maestro" musika diskako portadako marrazkia egin dute. Neskak hauek, Gipuzkoako txapelketa irabazteaz gain, Euskadikoa ere irabazi dute. Ez da makala hauen artelana.

Etxeko txikiak eskola bukatu dute, eta orain beraien gustuko tokira joaten dira, Udalekuetara. Esaerak dioen legez, gogozko tokian aldaparik ez, hemen ere berdin. Udaleku hauen arduradun lanak egiten **Larraitz Iñurritegi** ari da. Pazientzia hartu!

Eskola bukatzeaz bat, jaiei hasiera ematen zaie askotan, herrian ere horixe egingo dugu. Aurten talde berri bat ari da Portasolgo jaiak antolatzen, eta ea bada bi aste barru ospatzeko moduan gauden. Ni desiatzen nago kale kantoi honetatik atera eta Portasol aldera edo martxa dagoen tokira joateko.

M. J. Aretxarte



Matteo

Testua, Paula Carballeira

Ilustrazioa, Pablo Otero "Peixe"

Kalandraka, 2000. – (Amets egiteko liburuak bilduma)

Matteo kaletik doa bere amaren eskutik, hegazkin bat pasatu eta hari begira geratzen delarik ama galdutako egiten zaionean. Orduan Matteok bere ama aurkitu beharko du.

Liburu zoragarria duzue honako hau, haurren mundua oso ongi erakusten diguna marrazkien itxura eta ikuspuntu bereziarekin. Izan ere haurren marrazkiak dakarzkigu gogora eta mundua haur txiki baten ikuspegitik agertzen da (nagusien berna bakarrik ikusten dira momentu askotan). Amaieran humore ukitu berezia dauka, ama aurkitzean. Hiru urtetik aurrerako umeei kontatzeko liburu bikaina iruditzen zait.

Joseba Lopez de Armentia

BIBLIOPORRAK

GOMENDATUTAKO LIBURUEN ZERRENDA:

Fernandez Paz, A.: Nogueira doktorearen laborategia, Elkarlanean

Gartzia, J.: Tunelaz bestaldean, SM

Gudule: Bizitza atzeraka, Elkarlanean

Mankell, H.: El perro que corría hacia una estrella, Siruela

Marin, P. A.: Bizitzaren gesala, Elkarlanean

Pullman, P.: La maldición del rubí, Montena/Mondadori

Santos, C.: La ruta del huracán, Alba

Westphalen, J. V.: Los imposibles: guía para educar a tus padres Ediciones B

Wilde, O.: Printze zoriontsua, Elkarlanean

UZTAILA

2-20

■ UDALEKU IREKIAK

Uztailaren 20a artean umeek udaleku irekietan jolasteko aukera izango dute.

8 DOMEKA**■ PILOTA PARTIDUA FINALA**

Herriko pilotariak herri arteko txapelketako finala jokatuko dute goizeko 10:30etik aurrera Sorluzeren aurka Donostiako Atano III pilotalekuan (Anoeta). Partidura joateko autobusa egongo da doanik. Goizeko 8:30ean aterako da Azbeke geltokitik eta itzulera ordua 18:00etan izango da. Tartean sargardotegira joateko aukera izango da edo eta Donostian buelta bat emateko. Apuntatzeko Gurean edo Errastinean egin daiteke. Partidurako sarrerak Gurean daude salgai.

10 MARTIZENA**■ SAN KRISTOBALAK**

San Kristobalak ospatuko dituzte Larrino auzoan.

13-14-15**■ PORTASOLGO JAIK**

Astebukaera honetan ospatuko dira Portasol auzoko jaiak. Sokamuturra, buruhandiak, musika taldeak eta hainbat txapelketa izango dira.

**13-21****■ MARGO ERAKUSKETA**

Margo ikastaroan ibili diren ikasleen margoen erakusketa egongo da ikusgai Murrukixoko lokalean.

20-21**■ MONEGROSERA URTEERA**

Monegroseko desertuan ospatuko den Rave jaialdira joateko urteera antolatu da gaztetxetik. Autobusak antolatuko dira eta izena emateko gaztetxean egin daiteke.

ERAKUSKETAK**■ MARGO ERAKUSKETA**

Udaleko kultura sailak margo ikastaroan ibili diren ikasleen lanak jarriko ditu ikusgai uztailaren 13tik 21era bitartean. Astegunetan 19:00etatik 20:30era izango da ordutegia eta astebukaeretan goizez 12:30etik ordu 2:30era eta arratsaldean 19:00etatik 20:30era. Lanok Murrukixoko lokalean egongo dira erakusgai.

KIROL UDALEKUAK

■ BIGARREN TXANDARAKO AUKERA Kirol udalekuetako lehenengo txanda bukatu da dagoeneko, eta datorren astelehenean bigarrenari hasiera emango zaio. Oraindik parte hartu gura izangez gero kiroletxera jo daiteke eta bertan izena eman. Kirolen artean, tenisa, arku tiraketa, aerobika, esku pilota, golf-a, eskalada, patinajea... daude.

**ZINE KLUBA
AIRE ZABALEAN**

Uztailak 12

- LA AMENAZA FANTASMA (EEBB)

Urtea: 1998

Aktoreak: Ewan McGregor, Liam Neeson, Natalie Portman, Jake Lloyd, Ian McDiarmid.

Uztailak 19

- SNATCH (CERDOS Y DIAMANTES)

Urtea: 2000

Zuzendaria: Guy Ritchie.

Aktoreak: Benicio del Toro, Dennis Farina, Vinnie Jones, Brad Pitt.



Uztailean zehar
zine kluba herriko
plazan egunetan
22:00etatik aurrera
ZATOZ!

AGENDA

Zorion agurrak



Iñaki Elorduizaparietxe
Ekainak 30
Zorionak zure emaztearen partetik.



Zorione Santamaria
Uztailak 3
Zorionak koadrilako guztien partetik.



Idoia Elexpuru
Uztailak 4
Zorionak koadrilako guztien partetik.



Inma Miguel
Uztailak 7
Gora San Fermin eta zorionak Inma zure lankideen partetik.



Itxaro Zubillaga
Uztailak 12
Zorionak familiako guztien partetik.



Gorka Perez de Labeaga
Uztailak 14
Zorionak eta ondo pasa etxekoan partez.

Sail honetan norbait zoriondu gura baduzu Aretxagazetara zuzendu (Durana, 11) edo eta 943 79 86 21 telefonora deitu.

Txistuak • Txaloak

Saso honetan jende ugari gerturatzen da Urkulura, asko eta asko kotxez. Eguzkiak gogor jotzen duenean, guztioi gustatzen zaigu kotxea kerizpean uztea. Baina Urkulu ez dago gertatuta horrenbeste kotxe jasotzeko, eta gutxiago kerizpetan. Hala ere, jendeak kotxea fresko mantentzea gura izaten du, eta argazkian ikus dezakegun moduan edozein bazterretan uzten dute kotxea. Horrek arrisku ugari eragiten ditu, bidearen bi aldetan aparkatzen dira kotxeak. Horregatik, kotxeek, oinezkoek eta bizikletan dabilzatenek ez dute leku horietan lasai ibiltzerik. Beraz, hemendik txistua horrelako lekuetan aparkatzen dutenei.



Hildakoak

■ Mari Karmen Arriola
Zugasti
Ekainaren 26an. 81 urte.

■ Zigor Bengoa
Barandiaran
Uztailaren 3an. 27 urte.

Jaiotakoak

■ Iker Jimenez Molina
Ekainaren 5ean.

■ Malen Jurado Urkia
Ekainaren 18an.

Aretxabaleta

• Almen	943 71 49 07
• Aretxagazeta	943 79 86 21
• Telebista	943 79 86 21
• Basotxo	943 77 09 81
• Euskaltegia	943 79 21 68
• Gizarte-Laguntzailea	943 79 10 00
• Hezibide Elkartea	934 79 31 32
• Industrialdea	943 79 62 80
• Institutua	943 79 79 00
• Kiroletxea	943 71 26 28
• Kultur-Etxea	943 71 10 27
• Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
• Kurtzebarri B.H.I.	943 79 57 40
• Liburutegia	943 79 10 00
• Loramendi E.E.	943 77 09 70
• Ludoteka	943 79 05 81
• Mankomunitatea	943 79 30 90
• Murruxiko M.E.	943 79 93 74
• Musika Eskola	943 79 36 50
• Osasun zentroa	943 79 74 58
• Otalora	943 71 24 06
• Parrokia (Bulegoa)	943 79 18 42
• Pausoka Haur-Esk.	943 77 03 77
• Postetxea	943 79 28 31
• Santa Rita Ikast.	943 79 17 00
• Saretxo	943 71 26 56
• Taxi Geltokia	943 79 22 33
• Udal Bulegoa	943 79 10 00
• Udaltzaingoa	943 79 10 52
• Urats Gain	943 79 99 11

Udaltzaingoa

• Arrasate	943 79 14 39
• Bergara	943 77 91 06
• Eskoriatza	943 71 44 07
• Oñati	943 78 04 11

Larrialdiak

• SOS Deiak	112
• Eskualde-Ospitalea	943 03 53 00
• Ertzaintza	943 79 71 99
• Gurutze-Gorria	943 76 55 76
• Larrialdiak	943 46 11 11
• Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

Garraioak

• Pesa	902 10 12 10
• Renfe (Gasteiz)	945 23 02 02
• Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15



A 1960. urteko jaunartzea

urten ohi baino berandua-
go ospatuko ditugu jaunartzeak herrian. Maiatzean izaten dira normalean, baina parrokoa obretan dela eta, uztailean atzeratu dira. Beraz, momentuan momentukoa ekarri gura izan dugu argazki zaharren txoko honetara. Orain 41 urte, 1960. urtean atara zuten goiko erretratua. Garai hartan zazpi urtekin

egiten zen jaunartzea, eta elizkizuna parrokan izaten zen. Jaunartzea egin ostean, plazako eskilaretan argazkia dotore dotore jantzita atera zuten, mutilak marineru jantziarekin eta neskek, soineko txuri luzearekin. Argazkikoak behean ezkerretik eskumara: **Ana Rosa Etxebarria, Pello Zubizarreta, Jose Zubizarreta, Miguel Angel Gon-**

zalez, Mari Angeles Rivera.

Erdiko iladan: Ana Rosa Lasagabaster, Angelita Zubizarreta, Itziar Bengoa.

Goiko iladan: Resu Urrutia, Maite Idigoras, X, Ana Mari Lasa.

Argazkia: Koldo Zubizarreta.

Informazioa: Koldo Zubizarreta, Jasone Gorroño.



LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Liderra segurtasunean

Egiazta ezazu

“Erabiltzaile eta kontsumitzaileen Erakundeak (OCU), “crash test” delakoaren bitartez egindako ikerketaren arabera, Ford Focus-ek puntuaziorik altuena lortu du segurtasunean, beste 5 modelorekin batera”

AUTOPISTA aldizkariko 2.064. zenbakian argitaratua

Ford Focus ****
Mercedes Clase A ****
Opel Astra ****
Renault Mégane ****
Audi A3 ****
VW Golf ****
Citroën Xsara ***
Peugeot 306 ***
Toyota Corolla ***
Daewoo Lanos ***
Honda Civic ***
Fiat Brava **
Ford Scort **
Hyundai Accent **
Mitsubishi Lancer **
Nissan almera **
Suzuki baleno **

Dagoeneko

TDCi

Common-Rail

115 cv.



MUGARRI



DEBA GARAIKO
BANATZAILE OFIZIALA

Araba etorbidea, z/g • ARRASATE

Tel.: 943 79 07 44 / 943 79 07 54



**Beherapen
bereziak**

UNITED COLORS
OF BENETTON.

Maalako Errabala, 13 behea
ARRASATE ☎ Tel.: 943 79 92 76